

Euskadiko Moodle Esperientziak Trukatzeako 2.Jardunaldiak antolatu ditu MUK, tresna horren erabilera eta garapen berriak aztertzeako

2008/05/23

- **Lineako ikastaroak kudeatzeko software libreko plataforma birtuala da Moodle.**
- **Ikasteko formula berriak sortu eta hainbat esparrutan aplikatzeko aukera ematen du.**
- **Ikaslea bere prestakuntzako protagonista izatea du helburu.**

Arrasate, 2007ko maiatzaren 23a. Mondragon Unibertsitateak Euskadiko Moodle Esperientziak Trukatzeako Bigarren Jardunaldiak antolatu ditu. Moodle lineako ikastaroak kudeatzeko software libreko sistema da eta ikasteko formula berriak sortzeko aukera ematen die irakasleei. Jardunaldien helburua bertaratuei tresna horren erabilera eta garapenak ezagutarazi eta sistemari buruz eztabaidatzeko foroan esperientziak trukatzeko da.

Ikasteko plataforma hori errealitate finkoa da Euskal Autonomia Erkidegoko hezkuntza-maila guztietan. Tresna horren erabilerak eragindako esperientzia ugari esker, hainbat jardunbide egoki garatu dira dagoeneko eremu guztietan, hala nola irakasteko estrategietan, ezarpenean edo difusio-estrategia instituzionaletan. Jardunbide horiek ezagutaraziko dira jardunaldietan.

Esperientzia horiek gorabehera, bide luzea dago oraindik ibiltzeko. Adibidez, Goi Hezkuntzako Europar Eremuak (GHEE) babestutako metodologia pedagogiko berrien esparruan txertatu beharra dago plataforma. Ikaslea bere prestakuntzako protagonista izateko erronkari irtenbideak eman ahal dizkio Moodlek.

Sistema pedagogiko hori Martin Dougiamas-ek (Curtineko [Australia] Unibertsitate Teknologikoko web administratzaile ohiak) sortu zuen, 2002an. Proiektua garatzeko inspirazioa pedagogia konstrukzionista sozialak eman zion. Horren arabera, ezagutza ikaslearen adimenean eraiki behar da, eta ez zaio liburuen bidez transmititu behar. Ikuspegi horri jarraiki, ikasleak, bere ingurunearekin elkarrekin dituen neurrian, ezagutzak bereganatzen ditu; hortaz, ikaskuntza oso eraginkorra da besteengana iritsiko den zerbait eraikitzen denean..

Teknologia berrien ahalmen handiari esker, beste zenbait eremutan ere bereganatu dute tresna hori etengabeko prestakuntzan erabiltzeko, esaterako enpresa eta erakundeetan, eta dagoeneko Moodle ezarri, garatu eta hedatzeko estrategiak sortzen ari dira.

Jardunaldien helburua ikaslea bere prestakuntza eta ikaskuntzako protagonista izatea da. Hala ere, tresnaren berritasuna dela eta, beste helburu bat Goi Hezkuntzako Europar Eremuak (GHEE) babestutako metodologia pedagogiko berrietan txertatzea da.

